**UDALBATZAK 2018KO URTARRILAREN 30EAN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko urtarrilaren 30eko arratsaldeko 18:30 zirela, lehenengo deialdian eta Julen MENDOZA PEREZ (Orereta/Errenteriako EHBildu) alkate jaunaren esanetara, ondorengo zinegotziak elkartu dira:

***Orereta/Errenteriako EHBildu***

- Jaione KARRIKIRI GARAÑO
- Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Itziar OSTOLAZA GALDÓS
- Jon TXASKO ORGILLES
- Bernardo LEMOS TABERNA

***Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos***

- Jose Angel RODRÍGUEZ MEDINA
- María Almudena DE LA TORRE FERNÁNDEZ
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- María Teresa AZPILICUETA LLORENTE
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Montserrat LUIS CANO
- Iñaki RUIZ ALONSO

***Errenteria IrabaziZ***

- Yon COLLAR RIOSECO
- Jose Cruz LEGORBURU AYESTARÁN
- Nagore BASURTO ESCAMILLA
- Miguel María RODRÍGUEZ BARBERO

***EAJ/PNV***

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA DE PLENO DE LA CORPORACION CELEBRADA EL DIA 30 DE ENERO DE 2018**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 18:30 horas del día 30 de enero del año dos mil dieciocho, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde Julen MENDOZA PÉREZ (Orereta/Errenteriako EHBildu), los siguientes Concejales:

***Orereta/Errenteriako EHBildu***

- Jaione KARRIKIRI GARAÑO
- Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Itziar OSTOLAZA GALDÓS
- Jon TXASKO ORGILLES
- Bernardo LEMOS TABERNA

***Euskal Sozialistak-Socialistas Vasco***

- Jose Angel RODRÍGUEZ MEDINA
- María Almudena DE LA TORRE FERNÁNDEZ
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- María Teresa AZPILICUETA LLORENTE
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Montserrat LUIS CANO
- Iñaki RUIZ ALONSO

***Errenteria IrabaziZ***

- Yon COLLAR RIOSECO
- Jose Cruz LEGORBURU AYESTARÁN
- Nagore BASURTO ESCAMILLA
- Miguel María RODRÍGUEZ BARBERO

***EAJ/PNV***

- Maite PEÑA LÓPEZ
- José Manuel FRANCO INSAUSTI
- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore SARASOLA OTERMIN idazkari nagusia.

Era berean, bertan dago Mª José SANCHEZ PLAZA udal kontu-hartzailea.

----------

**1. Udalbatzak 2017ko irailaren 22an eginiko ezohiko eta presazko osoko bilkurari dagokion akta irakurri eta, egoki bada, onartzea.**

Idazkariak irakurri du 2017ko irailaren 22an eginiko ezohiko eta presazko osoko bilkurari dagokion akta.

Oharrik gabe onartu da.

**2. Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatetzarenak eta Zinegotzi-ordezkarienak, 2017ko 3606 zk.tik 3782 zk.ra, (biak barne) eta 2018ko 1 zk.tik 142 zk.ra, (biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzordearenak.**

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**3. Berri ematea: Kontuhartzailetzako txostenak.**

Ondokoak jakinarazi dira:

1. Aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruzko

- Maite PEÑA LÓPEZ
- José Manuel FRANCO INSAUSTI
- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

Asiste y da fe del Acto, la Secretaria General Nagore SARASOLA OTERMIN.

Igualmente asiste la Interventora Municipal Mª José SANCHEZ PLAZA.

----------

**1. Lectura y aprobación en su caso del acta correspondiente a la sesión extraoridinaria y urgente del 22 de septiembre de 2017.**

Leída por la Secretaria el acta correspondiente a la sesión extraoridinaria y urgente del 22 de septiembre de 2017.

Se aprueba sin observación alguna.

**2. Dar cuenta de Resoluciones del Alcalde y de Concejales Delegados, nºs. 3606 al 3782 (ambos incluidos, correspondientes a 2017) y nºs 1 al 142 (ambos incluidos, correpondientes a 2018) y de la Junta de Gobierno Local.**

El Pleno queda enterado.

**3. Dar cuenta: Informes Intervención.**

Se da cuenta de los siguientes:

1. Informes sobre el cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

txontena ondorengo Kreditu aldaketen ondoren:

tras las siguientes modificaciones de crédito:

KREDITU TRANSFERENTZIAK – TRANSFERENCIAS DE CREDITOS – 2017KALD000016-00
KREDITU GEHIGARRIAK – CRÉDITOS ADICIONALES – 2017KALD000018-00
KREDITU GAIKUNTZA - HABILITACIÓN DE CRÉDITOS – 2017KALD000019-00

2. Finantza eta Aurrekontuen arloko informazioa: 2017ko 4. hiruhilabetea. (Behin-behinekoa)

2. Información Financiera y Presupuestaria: 4º trimestre de 2017. (Provisional)

**4. 2018ko Ordenantza Fiskalak aldatzeko proposamena: lehenengo aldaketa.**

Ordenantza fiskalak aldatzeko proposamena aurkeztu da bi akats zuzenketa ondorioz, bere eranskinetan zehazten den edukiarekin.

**3.02.- TASA: Hondakinen bilketa eta ezabaketa zerbitzua.**

2018ko Ordenantza Fiskalak dokumentuaren hasierako onespenerako proposamenean jasota zegoen, besteak beste, mantendu egingo zela azken urteotan ezarritako hobari eta salbuespen sorta. Era berean, zehatz-mehatz jasotzen ziren aldaketa esanguratsuenak.

Proposamen horri dagokion eranskinean akats bat antzeman da “Hondakinen bilketa eta ezabaketa zerbitzua arautzen duen Ordenantza Fiskala” izeneko 3.02 atalean, hain zuzen ere, hobariak arautzen dituen 4. artikuluan. Akats hori bosgarren edukiontziaren bidez (marroia) biohondakina gaika biltzeko udal Programan modu aktiboan parte hartzearen definizioari dagokion paragrafoan dago.

**4. Propuesta de modificación de las Ordenanzas Fiscales 2018: 1ª modificación.**

Se ha presentado propuesta de modificación de las citadas ordenanzas fiscales, como consecuencia de dos rectificaciones de errores, con el contenido de sus correspondiente anexos.

**3.02.- TASA: Servicio de recogida y eliminación de residuos.**

En la propuesta de aprobación inicial de las Ordenanzas Fiscales para el año 2018, se señalaba, entre otros, que se mantenían el paquete de bonificaciones y exenciones implantadas en los últimos años y se especificaban las modificaciones más significativas.

En en anexo correspondiente a dicha propuesta, en el apartado 3.02 “Ordenanza fiscal reguladora de la tasa de servicio de recogida y eliminación de residuos”, en el art. 4 que regula las bonificaciones, se ha detectado un error, en el párrafo correspondiente a la definición de participación activa en el Programa municipal de recogida selectiva de biorresiduo mediante quinto contenedor (marrón).



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Espedientean jasota dagoen bezala, akats bat izan da; izan ere, ez da inolako aldaketarik proposatzen bosgarren edukiontziaren bidez (marroia) biohondakina gaika biltzeko udal Programan modu aktiboan parte hartzearen definizioaren inguruan.

Visto que se trata de un error, ya que tal y como consta en el expediente no se propone ningún tipo de modificación respecto a la definición de participación activa en el Programa municipal de recogida selectiva de biorresiduo mediante quinto contenedor (marrón)

Aurrekoa kontuan hartuta proposatzen da, eranskina zuzentzea, hondakinen bilketa eta ezabaketa zerbitzuaren tasa arautzen duen Ordenantza Fiskalari dagokiona eta GAOn 2017ko abenduaren 26an argitaratu zena. Honela idatzita geratuko da:

A la vista de cuanto antecede, se propone rectificar el anexo correspondiente a la Ordenanza Fiscal reguladora de la tasa por el servicio de recogida eliminación de residuos publicado en el BOG de 26 de diciembre de 2017, quedando de la siguiente forma:

*"IV.- tarifaren %25 hobaria izango dute:*

*1.- Bosgarren edukiontziaren bidez (marroia) biohondakina gaika biltzeko udal Programan modu aktiboan parte hartzen duten etxebizitzak.*

*Programa horretan modu aktiboan parte hartzen dela ulertzeko, 2018ko urtarrilaren 1etik apirilaren 30a bitartean, gutxienez, hilean hiru (3) aldiz eta egun desberdinetan zabaldu beharko da bosgarren edukiontzia, erabilera elektronikoaren bitartez.*

*Udal Programa bat denez, Udalak baditu datu horiek eta, horrenbestez, hobariak automatikoki aplikatuko dira, aurretik inolako eskaerarik egin gabe; betiere, eskakizunak betetzen dira".*

*"IV.- Del 25 de la tarifa de:*

*1.- Viviendas que participen activamente en el Programa municipal de recogida selectiva de biorresiduo mediante el quinto contenedor (marrón)*

*Se entenderá por participación activa en el citado programa, si en el periodo comprendido entre el 1 de enero y el 30 de abril de 2018, se ha procedido al uso electrónico del quinto contenedor mediante un mínimo de tres (3) aperturas al mes en días diferentes.*

*Al tratarse de un Programa municipal, se dispone de dichos datos, por lo que las bonificaciones se aplicarán automáticamente sin previa solicitud, siempre que se cumplan los requisitos".*

**3.05.- TASA: Hirigintzako lizentziak ematea.**

**3.05.- TASA: Concesión de licencias urbanísticas.**

**3.05.1.6.- Hirigintzako espedienteak tramitatzea:**

**3.05.1.6.- Tramitación de expedientes urbanísticos:**

*"Konpentsazio proiektuen*" tasa eta *"Hondamendia aitortzeko espedienteak, hala eskatuta"* tasa

Se propone eliminar la tasa por "*Proyectos de Compensación"* y la tasa por *"Expedientes de*



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

ezabatzea proposatzen da. Lehenengoak dagoeneko ez duelako izen hori, eta bigarrena errepikatua dagoelako.

"*Nahitaezko desjabetze espedienteak, onuraduna konpentsazio Batzordea denean*" tasari dagokionez, izena zuzendu behar da, eta horrela geldituko da:

*"Nahitaezko desjabetze espedienteak, onuraduna kontzertazio batzordea denean".*

Akats zuzenketa denez, bidezkoa da aplikatzea 2018ko Ordenantza Fiskalen aldaketa indarrean sartu zen datatik (2018-01-01),

Txosten teknikoak eta 2018ko urtarrila 17ko Udal Kontuhartzailearen, Sanchez andrearen txostena ikusirik

2018ko urtarrilaren 24an, Ogasun eta Garapen Ekonomikoko zinegotzi ordezkariak proposatuta, Antolaketa batzordeak gai honen aldeko irizpena eman zuen.

Udalbatzak, aldeko 11 botoren gehiengoarekin (Orereta\Errenteriako EHBILDU, Errenteria IrabaziZ) eta 10 abstentziorekin (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV),

**ERABAKI DU**

**1.** Aurkeztutako Ordenantza fiskalen hurrengo aldaketen proposamenari, hasierako **onespena** ematea, eranskinetan proposatzen den edukiarekin.

**3.02.- TASA: Hondakinen bilketa eta ezabaketa zerbitzua.**

*declaración de ruina a instancia de parte".* La primera por no tener a la fecha dicha denominación, y la segunda por encontrarse repetida.

En relación a la tasa por *"Expedientes de expropiación forzosa cuando el beneficiario es la Junta de Compensación"* debe corregirse la denominación, que quedará de la siguiente forma:

*"Expedientes de expropiación forzosa cuando el beneficiario es la Junta de Concertación".*

Al tratarse de rectificación de errores procede la aplicación desde la fecha de entrada en vigor de la Modificación de Ordenanzas fiscales de 2018 (01-01-2018)

Vistos los informes técnicos y el informe de la Interventora municipal, Sra. Sánchez, de fecha 17 de enero de 2018.

Visto que en fecha 24 de enero de 2018, a propuesta del Concejal Delegado de Hacienda y Desarrollo Económico, la Comisión de Organización dictamina favorablemente el presente asunto.

El Pleno de la Corporación por mayoría de 11 votos a favor (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ) y 10 abstenciones (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV),

**ACUERDA**

**1.- Aprobar** inicialmente la propuesta de modificación de las Ordenanzas fiscales que se detalla a continuación, con el contenido propuesto en los anexos:

**3.02.- TASA: Servicio de recogida y eliminación de residuos.**



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

4. artikuluaren IV. Atala hurrengo moduan idatzita geldituko da:

IV.- tarifaren %25 hobaria izango dute:

1.- Bosgarren edukiontziaren bidez (marroia) biohondakina gaika biltzeko udal Programan modu aktiboan parte hartzen duten etxebizitzak.

Programa horretan modu aktiboan parte hartzen dela ulertzeko, 2018ko urtarrilaren 1etik apirilaren 30a bitartean, gutxienez, hilean hiru (3) aldiz eta egun desberdinetan zabaldu beharko da bosgarren edukiontzia, erabilera elektronikoaren bitartez.

Udal Programa bat denez, Udalak baditu datu horiek eta, horrenbestez, hobariak automatikoki aplikatuko dira, aurretik inolako eskaerarik egin gabe; betiere, eskakizunak betetzen dira.

**3.05.- TASA: Hirigintzako lizentziak ematea.**

Eranskina hurrengo moduan idatzita geldituko da:

**3.05.1.6.- Hirigintzako espedienteak tramitatzea:**

El apartado IV del artículo 4 queda redactado en los siguientes términos:

IV.- Del 25 de la tarifa de:

1.- Viviendas que participen activamente en el Programa municipal de recogida selectiva de biorresiduo mediante el quinto contenedor (marrón)

Se entenderá por participación activa en el citado programa, si en el periodo comprendido entre el 1 de enero y el 30 de abril de 2018, se ha procedido al uso electrónico del quinto contenedor mediante un mínimo de tres (3) aperturas al mes en días diferentes.

Al tratarse de un Programa municipal, se dispone de dichos datos, por lo que las bonificaciones se aplicarán automáticamente sin previa solicitud, siempre que se cumplan los requisitos”.

**3.05.- TASA: Concesión de licencias urbanísticas.**

El anexo queda redactado en los siguientes términos:

**3.05.1.6.- Tramitación de expedientes urbanísticos:**

| | | |
|---|---|---|
| Kontsultak egitea eta hirigintzako zedulak | 364,65 € | Consultas y cédulas urbanísticas |
| Hondamendi aitormena, hala eskatuta | 911,95 € | Declaración de ruina a instancia de parte |
| Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren aldaketa | 3.645,20 € | Modificación del Plan General de Ordenación Urbana |
| Plan partzialak | 3.645,20 € | Planes parciales |
| Plan bereziak | 3.645,20 € | Planes especiales |



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

| | | |
|---|---|---|
| Xehetasun ikerketak | 1.217,95 € | Estudios de detalle |
| Urbanizatzeko jarduketa programa | 1.823,05 € | Programas de actuación urbanizadora |
| Birsailkatze proiektua | 1.823,05 € | Proyecto de reparcelación |
| Birsailkatze-prozedura laburrak | 911,75 € | Procedimientos abreviados de reparcelación |
| Nahitaezko desjabetze espedienteak, onuraduna kontzertazio batzordea denean | 1.217,85 € | Expedientes de expropiación forzosa cuando el beneficiario es la Junta de concertación |

Aurrez aipatu tarifek ez dakarte berekin iragarkien gastuak. Hirigintzako Arauak betetzearen ondorioz Aldizkari ofizialetan eta egunkarietan argitaraturikoak, horiek beren benetako balioan likidatuko direlako.

Las anteriores tarifas no incluyen los gastos de publicación en Boletines Oficiales y prensa que se hayan realizado en cumplimiento de la Normativa Urbanística, que se liquidarán por su valor real.

**2. Akordioa jendaurrean jartzea** 30 lanegunez. Epe horretan erreklamazio zein iradokizunak egin ahal izango direlarik. Egoki den iragarkia Udalaren Iragarki Oholean, udal web orrian, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapenik handienetakoa den egunkari batean argitaratuko da.

**2.- Someter el acuerdo a información publica** por el plazo de 30 días hábiles, a efecto de reclamaciones y observaciones que pudieran deducirse. Se publicará el correspondiente anuncio en el Tablón de Edictos del Ayuntamiento, web municipal, Boletín Oficial de Gipuzkoa, y al menos un diario de mayor difusión del Territorio Histórico de Gipuzkoa

**3.** Ordenantzen aldaketa eta eranskinen inguruko erabakiak behin betikoak izango dira, eta beraz ez dute erabaki berririk beharko, baldin eta jendaurreko informazio-epea amaitu ondoren ez bada erreklamaziorik jaso, eta indarrean sartuko dira ordenantza aldaketaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina. .

**3.-** Los acuerdos adoptados sobre modificaciones de las Ordenanzas fiscales y sus anexos devendrán definitivos, sin necesidad de nuevo acuerdo, si transcurrido el plazo reglamentario de la información pública no se hubiera producido reclamación alguna, y entrarán en vigor tras la publicación de su texto integro en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, y causará efecto con fecha 1 de enero de 2018.

Momentu honetan, 18:37 direla, Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) bost minutuko eten bat baimendu du hurrengo puntuan jorratuko

En este momento, siendo las 18:37 h el Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteriako EHBildu) autoriza un receso de cinco minutos para estudiar el contenido



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

diren mozioen edukia aztertzeko, bat oraintxe banatu baitute.

--------

18:47 direla, bilerari ekin diote berriz eta gai hau jorratu da:

**<u>5. Errenteria IrabaziZ eta Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos udal taldeek aurkeztutako mozioak, pentsioen etorkizunari buruzkoak.</u>**

Irakurri da Errenteria IrabaziZek aurkeztutako mozioa, pentsioen etorkizunari buruzkoa:

**"JUSTIFIKATZEA**

Gizarte Segurantzak duen defizit egoera dela eta, aurten ere, sistemarenak ez diren baliabideak erabili behar izango dira pentsiodunei aparteko bi pagak ordaintzeko. 2017an, Estatuaren maileguaz gain, 7.100 milioi atera ziren pentsioen Erreserba Funtsetik.

2018ko Estatuko Aurrekontu Orokorrek (oraindik onartu gabeak) 15.000 milioiko maileguaren beharra aurreikusi dute pentsioak ordaintzeko, Ogasunak Gizarte Segurantzari berriro emango diona, 2017an transferitu zizkion 10.192 milioietatik aparte.

Diru-kopuru hori nahikoa izango litzateke aurtengo pagak ordaintzeko eta ez ukitzeko Erreserba Funtsean geratzen den apurra, 8.000 milioi inguru. Egia esan, Gobernuak funtsean geratzen den apur hori erabili ahal izango luke eta kopuru hori bera gutxitu ahal izango lioke Gizarte Segurantzaren maileguari. Baina badago itxura kontu bat hori guztia geldiarazten duena: komunikabideetan erreserba

de las mociones que se van a tratar en el siguiente punto, puesto que una de ellas se acaba de repartir.

--------

Siendo las 18:47 h se reanuda la sesión y pasa a tratarse el siguiente asunto:

**<u>5. Mociónes sobre el futuro de las pensiones presentadas por Errenteria IrabaziZ y Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos.</u>**

Se da lectura a la siguiente moción sobre el futuro de las pensiones presentada por Errenteria IrabaziZ:

**"JUSTIFICACIÓN**

La situación de déficit de la Seguridad Social obligará de nuevo este año a utilizar recursos ajenos al propio sistema para pagar las dos pagas extra que reciben los pensionistas. En 2017, además del préstamo del Estado se sacaron 7.100 millones del Fondo de Reserva de las pensiones.

Los Presupuestos Generales del Estado para 2018 (todavía no aprobados) contemplan un crédito de 15.000 millones de Hacienda a la Seguridad Social, para el pago de las pensiones, tras los 10.192 millones que ya le transfirió en 2017.

Con esta cantidad sería suficiente para pagarlas este año y no tocar lo poco que queda del Fondo de Reserva, unos 8.000 millones. En realidad, el Gobierno podría utilizar lo que queda del fondo y reducir en la misma cantidad el crédito a la Seguridad Social. Pero hay una cuestión de imagen que lo frena: no querer que aparezca en los medios de comunicación que el fondo de reserva se ha



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

funtsa agortu dela ez agertzeko nahia; izan ere, horrek oso urduri jarriko lituzke ia bederatzi milioi pentsiodunak.

agotado, lo que pondría muy nerviosas a los casi nueve millones de personas pensionistas.

Gizarte Segurantzaren sistemak 19.455.384 kotizatzaile eta 8.705.707 pentsiodun zituen joan den urteko itxiera garaian; hau da, gizarte segurantzan afiliatutako 2,23 pertsona, pentsioren bat jasotzen duen pertsona bakoitzeko eta hori, daturik txarrena da 1999tik honako historian zehar. Kotizatzaile eta pentsiodunen arteko orekak okerrera egin du 2016koarekin alderatuz gero. Orduan, 2,27 kotizatzaile ziren erretiratu bakoitzeko. Ordutik hona, pentsiodunen kopurua 96.000tik gora handitu den bitartean, kotizatzaileen kopuruak (langileak eta langabetuak) 129.271 pertsonatan gutxitu da.

El sistema de la Seguridad Social contaba con 19.455.384 cotizantes y 8.705.707 pensionistas a cierre del año pasado, lo que da 2,23 personas afiliadas a la seguridad social, por cada persona perceptora de una pensión, marcando así el peor dato de la serie histórica desde 1999. El equilibrio entre cotizantes y pensionistas ha empeorado respecto a 2016, cuando se situaba en 2,27 cotizantes por persona jubilada, debido a que, mientras que el número de pensionistas ha aumentado en más de 96.000, el de cotizantes (trabajadoras y desempleadas) ha disminuido en 129.271 personas.

2017ko itxiera garaian zeuden 8,7 milioi pentsiodunen artean, gehiengoak, 5,7 milioik, erretiro pentsioa jasotzen zuen, 1,7 milioik alarguntza pentsioa, 942.000 lagunek ezintasun iraunkorrekoa, 323.000 lagunek umezurtz pentsioa eta ia 40.000 lagunek familiartekoen aldeko pentsioa.

De los 8,7 millones de pensionistas a cierre de 2017, la mayor parte, 5,7 millones, eran perceptoras de una pensión de jubilación, mientras que 1,7 millones eran de viudedad, 942.000 de incapacidad permanente, 323.000 de orfandad y casi 40.000 a favor familiar.

Egoera hori PPko Gobernuak duen paralisiaren isla da, pentsioen etorkizuna bermatzeko neurriei eta erreformei ekiteko paralisiarena. Espainiako Gobernuak "zunda-globoak" bota besterik ez du egiten.

Esta situación es un reflejo de la parálisis del Gobierno del PP para abordar medidas y reformas que garanticen el futuro de las pensiones. El Gobierno Español no está haciendo nada más que lanzar "globos sonda".

Azken bi urteotan, mendebaldeko herrialde batzuek zergak ordaintzeko mailaketa aldatu zuten eta beste batzuek, aldiz, pentsioa jasotzeari erantsitako abantailak aldatu zituzten. ELGEk egindako estimazioen arabera, 2050ean, Espainiako Estatua izango da munduan pentsiodun proportziorik handiena izango duena lan egiteko adina duen populazioarekiko. Gure parean Japonia baino ez da

Durante los dos últimos años, una parte de los países occidentales cambiaron los niveles de contribución y otra parte modificaron los beneficios asociados para percibir una pensión. Las reformas pendientes en el Estado son críticas, como en pocos países. De acuerdo con las estimaciones de la OCDE, el Estado Español será en el año 2050 el lugar con mayor proporción de pensionistas en



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

egongo.

relación con la población en edad de trabajar, en el mundo. Sólo Japón nos igualará.

Gai horretan, eta beste batzuetan ere, arazoak epe luzean konpontzeko neurriak atzeratzeak, arazo horiek okerragotzea besterik ez du eragiten, baita etorkizunean konpontzen zailagoak izan daitezela ere.

En este aspecto, como en otros, posponer las medidas que resuelvan problemas a largo plazo solo hace empeorar esos mismos problemas, que serán más costosos de resolver en el futuro.

Ereduaren berrikuspen horrek, zalantzarik gabe, autonomia erkidegoen eta pentsiodunen partaidetza behar du. Partaidetza horrek bidezkoa eta nahikoa izan beharko du pentsiodunen behar materialak asebeteko dituela bermatzeko, genero ikuspegia txertatzeko eta egungo finantza eredua zalantzan jartzeko;  bai gizarte segurantzarekiko enpresek dituzten hobariei dagokienean, bai lurralde arteko elkartasunari dagokionean ere. Gainera, beharrezkoa da luzaro gabe exijitzea egungo Gernikako Estatutuaren 18.2 artikulua bete dezaten, Euskadiren kasuan; hain zuzen ere, Gizarte Segurantzaren alorrean eskumenak transferitzea azaltzen duen artikulua.

Esta revisión del modelo ha de ser, sin duda: participada por parte de las autonomías y de las personas pensionistas, justa y suficiente para garantizar la cobertura material de la vida de las personas pensionistas, con perspectiva de género y poniendo en cuestión el actual modelo de financiación, tanto a nivel de bonificaciones a la seguridad social por parte de las empresas, como en lo que tiene que ver con la solidaridad interterritorial. Además, es preciso exigir, sin más demora, el cumplimiento del artículo 18.2. del actual Estatuto de Gernika en el caso de Euskadi, que plantea la transferencia de competencias en materia de Seguridad Social.

Horregatik guztiagatik aurkezten dugu ondorengo

Es por ello, por lo que presentamos la siguiente:

**MOZIOA**

**MOCIÓN**

1- Errenteriako Udaleko Osoko Bilkurak Estatuko Gobernua premiatzen du indargabetu dezan Pentsioen Erreforma, 23/2013 Legea, Gizarte Segurantzaren Pentsio Sistemaren Jasangarritasun Faktorea eta Errebalorizazio Indizea arautzen dituen legeak onartutakoa, urtero KPIren igoera bera duen pentsio duina bermatzen jarraitu ahal izateko.

1- El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta al Gobierno del Estado a la derogación de la Reforma de las Pensiones aprobada por la Ley 23/2013 Reguladora del Factor de Sostenibilidad y del Índice de Revalorización de las Pensiones, para seguir garantizando una pensión digna que suba anualmente lo mismo que el IPC.

2- Errenteriako Udaleko Osoko Bilkurak Estatuko Gobernua premiatzen du legez ezar dezan pentsioak, inolaz ere, ez daitezen izan Lanbide Arteko

2- El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta al Gobierno del Estado a establecer por ley que las pensiones no puedan estar, en ningún caso, por



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Gutxieneko Soldata baino txikiagoak. Gutxieneko pentsioa errebaloratzea proposatzen dugu, betiere ondorengo baldintzetan: erretiro pentsioa, edo ezkontidea bere kargura ez duena, urteko LGSren parekoa izatea eta ezkontidea bere kargura duen pentsioa, berriz, urteko LGSren %110ekoa.

debajo del Salario Mínimo Interprofesional. Proponemos la revalorización de la pensión mínima en los siguientes términos: la pensión de jubilación personal o con cónyuge no a cargo será equivalente al SMI anual, la pensión de jubilación con cónyuge a cargo será equivalente al 110% del SMI anual.

3- Errenteriako Udaleko Osoko Bilkurak Estatuko Gobernua premiatzen du legez debeka dezan, kotizazioen defizit egoerak direla eta, Pentsioen Erreserba Funtsa libre erabili ahal izatea (lan erreformak ezabatutako %3ko muga berreskuratuz).

3- El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta al Gobierno del Estado a que se prohíba por ley la libre disposición (recuperando el tope del 3% eliminado por la reforma laboral) del Fondo de Reserva de las Pensiones para situaciones de déficit de cotizaciones.

4- Errenteriako Udaleko Osoko Bilkurak Estatuko Gobernua premiatzen du, Toledoko Itunaren baitan eta Autonomia Erkidegoen partaidetza bermatuta, bakoitzaren eskumenei arreta berezia jar diezaien, bereziki Euskadik eta Kataluniak transferitzeke dituztenei. Halaber, pentsiodunek ere parte hartu beharko dute hausnarketa partekatu batean Estatuaren Aurrekontu Orokorretan zuzenean finantzabideak bilatzeko; hain zuzen ere, honako xede hauek izango dituzten finantzabideak: ezabatzea Gizarte Segurantzarekiko enpresek dituzten kotizazio murrizketak eta hobariak, hobari fiskalen gaineko neurriak kentzea pentsio plan pribatuetatik, aurreikuspen sozialeko sistemen erreformetatik deuseztatzea lan-bizitza luzatze aldera ezarritako neurriak. Labur esanda, lurraldeen eta belaunaldien arteko elkartasun printzipioetan oinarri daitezela.

4- El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta al Gobierno del Estado a que, en el seno del Pacto de Toledo y garantizando la participación de las Comunidades Autónomas, con especial atención a las competencias de cada una de ellas, y en concreto, de las pendientes de transferir en Euskadi y Cataluña. Asimismo, se contará con la participación de las personas pensionistas, en el abordaje de una reflexión compartida que busque vías de financiación directas desde los Presupuestos Generales del Estado que se traduzcan en: la eliminación de las bonificaciones y reducciones de la cotización de las empresas en la Seguridad Social, la eliminación de las medidas de bonificación fiscal de los planes privados de pensiones, la eliminación de las medidas establecidas en las reformas del sistema de previsión social encaminadas al alargamiento de la vida laboral y que, en definitiva, se centren en los principios de solidaridad intergeneracional e interterritorial.

5- Errenteriako Udaleko Osoko Bilkurak Estatuko Gobernua premiatzen du alarguntza pentsioak hobe diezazkien beste pentsio publikorik jasotzeko eskubiderik ez duten hartzaileei, norbere kontura edo

5- El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta al Gobierno del Estado a la mejora de las pensiones de viudedad para las personas perceptoras que no tengan derecho a otra pensión pública, no perciban



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

besteren kontura egindako lanagatik diru-sarrerarik ez dutenei eta aipatutako horiek ez diren bestelako errentek eragindako etekinik ez dutenei; betiere, alarguntza pentsio minimoa jaso ahal izateko, une oro ezarrita dagoen diru-sarrera muga gainditzen ez badute.

ingresos por la realización de trabajo por cuenta ajena o por cuenta propia, o rendimientos de rentas diferentes a los señalados anteriormente que superen, en cómputo anual, el límite de ingresos que esté establecido en cada momento para ser persona beneficiaria de la pensión mínima de viudedad.

6- Errenteriako Udaleko Osoko Bilkurak Estatuko Gobernua premiatzen du indargabetu ditzan bi Lan Erreformak, 2010ekoa eta 2012koa. Izan ere, enpleguaren kalitatearen gainean izan dituzten ondorio ezin txarragoek, arriskuan jarri ohi dituzte pentsioen iraunkortasuna eta etorkizuna. Era berean, eskatzen diogu beste enplegu eredu baten aldeko apustua egin dezan, bizitzaren iraunkortasunerako beharrezkoak diren beste espazio batzuetan oinarritzen dena; hala nola, zaintza lanak, energia garbiak eta abar.”

6- El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta al Gobierno del Estado a la derogación de las dos Reformas Laborales, las de 2010 y 2012, debido a que sus nefastas consecuencias para la calidad del empleo ponen en grave riesgo la sostenibilidad y el futuro de las pensiones. Asimismo, se insta a que apueste por un modelo de empleo centrado en otros espacios necesarios para el sostenimiento de la vida como los cuidados, las energías limpias, etc.”

Jarraian

Seguidamente

Palencia jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) adierazi du bere taldeak hasieran aurkeztutako mozioa alde batera utzi nahi dutela, eta horren ordez, EAJ/PNV taldearekin transakzionatutako mozioa aurkeztuko dutela, pentsioen etorkizunari buruzkoa. Hitzez hitz honela dio:

El Sr. Palencia (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) manifiesta que retiran la moción presentada inicialmente por su Grupo, presentando en su lugar una nueva moción sobre el futuro de las pensiones, transaccionada con el Grupo EAJ/PNV, que literalmente dice:

**“TRANSAKZIONATUTAKO MOZIOA**

Errenteriako Udalak honako hau eskatzen dio Espainiako Gobernuari:

1- 2011. urteko adostasunera itzultzeko eta 2011-2015eko legegintzaldian egindako lege-aldaketak indargabetzeko: 5/2013 Legegintzako Errege Dekretuko erretiro aurreratuaren erregulazioa, eta Gizarte Segurantzaren Pentsio Sistemaren

**“MOCIÓN TRANSACCIONADA**

El Ayuntamiento de Errenteria insta al Gobierno de España a:

1- Derogar todos los cambios legales introducidos a lo largo de la legislatura 2011-2015: la regulación de la jubilación anticipada del RDL 5/2013 y, de forma íntegra, la Ley 23/2013, reguladora del Factor de Sostenibilidad y del Índice de Revalorización del



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

jasangarritasun-faktorea eta errebalorizazo-indizea arautzen dituen 23/2013 Legea, oso osorik.

Sistema de Pensiones de la Seguridad Social.

2- Pentsioen bidez erosteko ahalmena bermatzeko eta pentsioak KPIaren arabera eguneratzen jarraitzeko.

2- Garantizar el poder adquisitivo de las pensiones, recuperando la actualización de las mismas conforme al IPC.

3- PP alderdiak 23/2013 Legean ezarri duen eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera erretiro-pentsioak bizi-itxaropenaren arabera murriztuko dituen jasangarritasun-faktorea indargabetzeko.

3- Eliminar el factor de sostenibilidad establecido por el PP en la Ley 23/2013, que reducirá las pensiones de jubilación en función de la esperanza de vida de la cohorte correspondiente a partir del 1 de enero de 2019.

4- Erreserba funtsa, %3 baino gehiago, nahieran erabiltzeko debekua itzul dadila lehengora, 28/2003 Legeak, azaroaren 29koak, arautua, eta 28/2012 ELD errege lege-dekretuak eta hurrengo aurrekontu-legeek salbuetsia.

4- Que se restituya la prohibición de libre disposición del fondo de reserva, más allá del 3%, regulada por la Ley 28/2003, de 29 de noviembre, y excepcionada por el R.D.I. 28/2012 y sucesivas leyes presupuestarias.

5- Euskadirako Autonomia Estatutua onartzen duen abenduaren 18ko, 3/1979 Lege Organikoko 18.2 arktikuluak eta bosgarren Xedapen gehigarriak dioten kontuan hartuz, ekiteko Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoa kudeatzeko eskumenak Euskadiko Erkidego Autonomoari berehalaxe eskualdatzeko eginbeharrei.

5- A que, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 18,2 y Disposición adicional quinta de la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, que aprueba el Estatuto de Autonomía para Euskadi, se inicien las actuaciones conducentes a la inmediata transferencia a la Comunidad Autónoma de euskadi de las competencias en materia de gestión del régimen económico de la Seguridad Social."

Jarraian honako adierazpenak egin dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Collar jaunak (Errenteria IrabaziZ) adierazi du guztiek dakiten moduan, mobilizazio-garaia dela, batez ere erretiratuak eta pentsiodunak ari dira beren eskubideak defendatzen. Errenteria IrabaziZetik aurkeztu duten mozioarekin lortu nahi dute Errenteriako udalbatza argi eta gogor azaltzea pertsona horien eta beren bidezko erreklamazioen alde. Azken batean, beren eskubideak dira aurrerago gainerako herritarren eskubideak izango direnak.

* Interviene el Sr. Collar (Errenteria IrabaziZ) manifestando que como todos saben, estamos en fechas de movilizaciones, sobre todo de las personas jubiladas y pensionistas en defensa de sus derechos. Desde Errenteria IrabaziZ buscan con la moción que presentan que desde el Pleno del Ayuntamiento de Errenteria se pronuncien clara y rotundamente en favor de estas personas y sus justas reclamaciones. En última instancia, sus



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Mozioak sei puntu ditu, eta bere posiziotik hiru premisa argi eta oinarrizkotan labur daitezke: alde batetik, funtsezkoa iruditzen zaie arlo sozialean ez onartzea pentsioak pixkanaka pribatizatzeko prozesua, alegia, Alderdi Popularraren gobernua burutzen ari dena. Bestalde, iruditzen zaie pentsio-sistema iraunkortzeko erretiro-adina atzeratzea ez dela sistema hori bermatzeko metodorik zuzenena; hartara, arbuiatzen dituzte langileen kalterako erretiro-adina atzeratzen duten proposamen guztiak. Hirugarren, iruditzen zaie pentsio-sistemaren epe luzerako aukera bideragarririk izango bada indargabetu behar direla bi lan-erreformak, 2010ekoa eta 2012koa, horiek enpleguaren kalitatean dituzten ondorio kaltegarriek arrisku larrian jartzen baitituzte pentsioen iraunkortasuna eta etorkizuna. Horrez gain, babestu nahi dituzte pentsio-sistema publiko iraunkorraren aldeko mobilizazio guztiak, eta herritarrak animatu nahi dituzte horietan parte hartzera. Horregatik proposatzen dute aurkeztutako mozioaren sei puntuak onartzea.

derechos son los derechos que en un momento posterior corresponderán al resto de la ciudadanía. La moción que presentan consta de seis puntos que se pueden resumir desde su posición en tres premisas claras y básicas, por un lado, consideran básico que a nivel social no se permita el proceso progresivo de privatización de las pensiones que está llevando a cabo el Gobierno del Partido Popular. Por otro lado, consideran que retrasar la edad de jubilación como elemento de sostenibilidad del sistema de pensiones no es el método más correcto de garantizar dicho sistema, por consiguiente, rechazan todas las propuestas que tengan por objeto aumentar la edad de jubilación en detrimento de las personas trabajadoras. En tercer lugar, entienden que una alternativa viable a largo plazo del sistema de pensiones pasa por la derogación de las dos reformas laborales, las de 2010 y 2012, debido a que sus nefastas consecuencias para la calidad del empleo ponen en grave riesgo la sostenibilidad y el futuro de las pensiones. Además, quieren apoyar y animar a participar en todas las movilizacones en defensa de un sistema público de pensiones sostenible. Es por ello que proponen aprobar los seis puntos señalados en la moción que han presentado.

* Oyarbide andreak (EAJ/PNV) euskaraz adierazi du bere taldearen iritziz pentsio-sistema publikoa ez dela soilik beharrezkoa, egingarria ere badela. Pentsioen sistema publikoak gizartea kohesionatzen laguntzen du, eta gainera, krisialdi ekonomikoan bistan geratu den bezala, ekonomia eusten ere laguntzen du. Gainera, adinekoen nahikotasun ekonomikoa eta, ondorioz, bizi-kalitate duina bermatzea ezinbestekoa du bere buruari ongizate estatua deritzon estatu batek. Beraz, sistemaren defizita ez da aitzakia pentsioen sistema honi ez eusteko, finantza-egoera dena delarik ere oreka bermatu beharra dago. Beren

* Interviene en euskera la Sra. Oyarbide (EAJ/PNV) manifestando que para su Grupo el sistema público de pensiones no es solo necesario, sino que también es posible. El sistema público de pensiones ayuda a cohesionar la sociedad y además, tal y como se ha visto durante la crisis, ayuda a sostener la economía. Además, la suficiencia económica de las personas mayores y, por consiguiente, garantizar una calidad de vida digna es indispensable para un estado que se autodenomina estado de bienestar. Por tanto, el déficit del sistema no es excusa para no soportar este sistema de pensiones porque hay que

ustez, horrek ez du esan nahi prestazioak finantzatzeko beste iturri batzuk baztertu behar direnik, ezta ere hobeto kudeatzea aurrezteko bidea izan ez daitekeenik ere, ezta funtsen bidez osatu ezin daitekeenik ere. Sistemari berak dituen bitartekoen bidez eustea da erronka, enplegu gehiago sortuz, batez ere kalitatezko enplegu egonkorra. Errealitate demografikora egokitzeko gai izan behar dugu, bizi-itxaropena geroz eta luzeagoa baitugu eta, ondorioz, baita garestiagoa ere. Erronka ez da sistemari orain eustea, erronka da geroko belaunaldiei ere bermatzea prestazio nahikoa eta duina jasoko dutela. Helburu hori lortzeko, ez dira batere lagungarri gertatu zenbait aldaketa parametriko, esaterako, IRPak edo pentsioen balioa handitzeko indizeak pentsioen eguneratzea aldendu egin du, oro har, onartutako erreferentzietatik, esaterako, KPItik. Hortaz, erretiroa hartzeko unean izango diren etorkizuneko pentsioak gero eta urrutiago egongo dira azkeneko soldatatik eta, beraz, horrek pobretze materiala ekarriko die bizitzeko iturri bakarra erretiro-pentsioa izango dutenei. Horregatik, beharrezkoa da kudeaketa hobetzea, eta horrek berekin dakar, beren iritziz, sistemari ez dagozkion kostuak saihestea, baita diru-sarrera iturri berriak bilatzea ere. Beren iritziz, Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoa Euskadira eskualdatzea beharrezkoa eta bidezkoa da. Eskubidea eta beharra dugu, Autonomia Estatutua betea izateko eta Espainiako Konstituzioko 41 eta 50. artikuluek aipatzen dituzten prestazio guztiak guk geuk kudeatzeko. Beren proposamena pasa diete gainerako alderdiei eta azkenean sozialistekin adosteko aukera izan dute bakarrik eta, ondorioz, adostutako proposamenaren aldeko bozka emango dute.

* Gracia jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du ez duela mozio bakoitza xehetasunez aztertuko eta esango zer duten ona eta

garantizar el equilibrio financiero. Esto no quiere decir, a su entender, que para financiar las prestaciones haya que rechazar otras fuentes, ni tampoco que una mejor gestión no pueda ser medio de ahorro. El desafío es que se mantenga con los medios de los que dispone el sistema, creando más empleo, sobre todo empleo duradero y de calidad. Tenemos que ser capaces de adaptarnos a la realidad demográfica, ya que la esperanza de vida es cada vez mayor y como consecuencia cada vez más cara. El reto no es continuar con el sistema, sino garantizar que las generaciones futuras puedan tener prestaciones suficientes y dignas. Para conseguir ese objetivo, no han sido de ninguna ayuda algunos cambios paramétricos, por ejemplo, las IRP o índices para la revalorización de las pensiones, han alejado en general la actualización de las pensiones de las referencias acordadas, por ejemplo del IPC. Así, a la hora de la jubilación, las pensiones futuras estarán cada vez más lejos de los últimos salarios y esto traerá pobreza material a aquellas personas que tengan sus pensiones como única fuente de ingresos. Por ello, es necesario mejorar la gestión, lo que conlleva, a su entender, evitar los costos correspondientes al sistema y buscar nuevas fuentes de financiación. Piensan que es necesario transferir la gestión del Régimen Económico de la Seguridad Social a Euskadi, ese es el camino. Tenemos el derecho y la necesidad de que se cumpla el Estatuto de Autonomía y se gestionen desde aquí lo que establecen los artículos 41 y 50 de la Constitución. Han trasladado su propuesta al resto de los Grupos y unicamente han podido llegar a un acuerdo con el Grupo Socialista. Votarán a favor de esa propuesta.

* Interviene en euskera el Sr. Gracia (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando que no va a entrar a desgranar una a una las mociones,



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

zer duten txarra, gaur nahiko entsalada dutelako mozioekin, eta orain, gainera, azken momentuan, aurkeztu dute transakzional bat. Lehenengo, aldarri bat egingo du, koherentziaren eta zintzotasunaren izeneko aldarri bat, batzuetan ematen diolako sentsazioa praktika politikoa eta diskurtso politikoa ez doazela bat gobernatzen denean eta oposizioan daudenean. Garrantzitsua iruditzen zaio hori gogoratzea. Pentsioez hitz egiten dutenean ez dira ari soilik pentsioez, hitz egiten ari dira gizarte-ereduaz, zer gizarte eraiki nahi duten, zergatik? azkenean pertsona guztiok modu batean edo bestean, zuzenean edo zeharka jasoko dugun zerbait delako, baldin eta ez badugu bidean fusilatzen. Orduan, nolabait, artikulatzen dutenean proposamen bat, egiten dituztenean murrizketak pentsioen inguruan, ari dira determinatzen zer gizarte mota eraikiko duten. Eta zentzu horretan, gogoratu behar da pentsioak aberastasuna birbanatzeko tresna oso garrantzitsuak direla. Mozioak irakurrita, kezkatzen dira murrizketak egiten direnean, erreformak murrizketak direnean, eta bera ez da hasiko Toledoko Ituna defendatzen, beren helburua azken finean baita transferentzia guztiak egitea eta muntatzea euskal pentsio-sistema propioa, baina hitz egin behar bada orain funtzionatzen duen zerbaitez, errelato bat eraiki behar badugu, pentsioen errelato hori ezin dugu modu interesatuan 2011n hasi, hasi behar dugu lehenago. Zergatik, Toledoko Itunean onartu zelako, adibidez, pentsioak izoztea kontsentsurik gabe, edo, adibidez, PSOE bakarrik gelditu zelako proposatu zutenean erretiroa atzeratzea 65 urtetik 67 urtera. Eta horregatik bere garaian esan zuen Sabino Cuadrak: “el Pacto de Toledo no existe, el Pacto de Toledo ha sido dinamitado, solo quedan sus despojos, solo quedan esos despojos que la Comisión Europea quiere aprovechar para una nueva reforma del sistema de

diciendo lo que tiene de bueno y de malo cada una de ellas, porque ya hay bastante ensalada con las mociones y ahora, a última hora, se ha presentado además una transaccional. Lo que sí haría en principio es una reivindicación en nombre de la coherencia y de la honradez, porque a veces tiene la sensación de que la práctica política y el discurso político no van de la mano cuando se gobierna y cuando se está en la oposición, cree que es importante recordar esto. Cuando se habla de las pensiones, no solo hablan de las mismas, sino del modelo social que se quiere construir, ¿por qué?, porque al final, de un modo u otro, de forma directa o indirecta, es algo que todas las personas percibirán, si no las han fusilado antes. Entonces, de alguna manera, cuando articulan una propuesta, cuando hacen reducciones en torno a las pensiones, están determinando qué tipo de sociedad están construyendo. En ese sentido, hay que recordar que las pensiones son una herramienta muy importante para la redistribución de la riqueza. Leyendo las mociones, les preocupa que se hagan reducciones, que se hagan reformas, sobre todo cuando las reformas son recortes, y no va a defender el Pacto de Toledo porque al fin y al cabo su reivindicación es que se hagan todas las transferencias y que se monte un sistema vasco de pensiones propio. Pero sí que habla de algo que ahora está funcionando, y si tienen que construir un relato en torno a las pensiones, no se puede, de manera interesada, iniciar ese relato en 2011. Hay que iniciarlo antes, porque en el Pacto de Toledo se aprobó, por ejemplo, congelar las pensiones sin consenso, o por ejemplo el PSE se quedó solo cuando propuso retrasar la edad de jubilación de 65 a 67 años. Por esto en su momento dijo Sabino Cuadra “el Pacto de Toledo no existe, el Pacto de Toledo ha sido dinamitado, solo quedan sus despojos, solo quedan



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

pensiones, para privatizarlo aun más". Horregatik esaten zuen koherentzia eta integritatearena, oso ondo baitago gaur hainbat puntu ekartzea hona, baina hori ere aplikatu behar baita norberak gobernatzen duenean. Aipatu da hemen KPIaren bermea, eta abar, ados egon daiteke, baina badauka gabezia garrantzitsu bat, ez zaiela zorurik jartzen pentsio minimo duinei. Gaur garrantzitsua da gogoraraztea euskal gehiengo sindikalak eta Duintasuna bezalako kolektibo batek ere gogorarazten digutelako, KPIa iraunkortasun-faktorea baino hobe izango da, bistakoa da, baina berari pertsonalki ez zaizkio ahazten jatorrizko bekatuak, eta iraunkortasun-faktorea, kategoria gisa, termino gisa sartzen duena PSE da. Eta gero etorri zen PP eta zehaztu zituen terminoak, baina lehenengoz Alderdi Sozialistak sartu zuen, eta iruditzen zaio horrek ezin duela doan izan. Horregatik bere garaian salatu zuten, eta Sabino Cuadrak ere esan zuen, "la introducción del Factor de Sostenibilidad en las reformas de las pensiones, fue a razón de una huelga general en nuestro pueblo -Hego Euskal Herriaz ari da- contra esta reforma. El Factor de Sostenibilidad no es sino una trampa, una engañifa para dinamitar desde dentro el sistema público de pensiones". Berak esango luke 27/2011 Legearen benetako Troiako zaldia hauxe izan zela, ondoren garatu zen bezala garatu zena. Eta hemen faltan botatzen du IrabaziZen proposamenean aurkitu duen zerbait, lan-erreformen aipamena, alegia, murrizketen aipamenak. Izan ere, PPk egiten du berea, baina zuek ere egiten duzue zuena, eta PSOEk egin zuen, nahiz eta gehiengo soila izan, beste batzuen abstentzioarekin. Eta zentzu horretan, pentsio-sistemaz eta kotizazio-sistemaz ari bagara, zenbat eta lan-baldintza txarragoak, orduan eta sistema ahulagoa izango dugu. Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos eta EAJ taldeek aurkeztu duten erdibideko mozioaren aurka bozkatuko dute, koherentziagatik

esos despojos que la Comisión Europea quiere aprovechar para una nueva reforma del sistema de pensiones, para privatizarlo aun más". Por esto decía lo de la coherencia y la honradez, porque está muy bien traer hoy ciertos puntos aquí, pero eso también hay que aplicarlo cuando se gobierna. Se apunta la garantía del IPC, etc., y podrían estar de acuerdo, pero tiene una carencia importante, y es que no se le pone un suelo digno a las pensiones mínimas. Cree que es importante decir esto, porque así lo dice la mayoría sindical vasca y un colectivo como Duintasuna, y en ese sentido, el IPC puede ser mejor que el factor de sostenibilidad, evidentemente, pero ahí a él personalmente no se le olvidan los pecados originales, y el factor de sostenibilidad, como categoría, como término, el primero que lo introdujo fue el PSE y de aquellos polvos, estos lodos. Efectivamente, luego vino el PP y concretó los términos, pero el primero que lo introdujo fue el Partido Socialista, y eso no puede salir gratis. Por eso en su momento su grupo lo denunció y Sabino Cuadra dijo también que "la introducción del Factor de Sostenibilidad en las reformas de las pensiones, fue a razón de una huelga general en nuestro pueblo -está hablando de Hego Euskal Herria-, contra esta reforma. El Factor de Sostenibilidad no es sino una trampa, una engañifa para dinamitar desde dentro el sistema público de pensiones". Personalmente diría que el verdadero Caballo de Troya de la Ley 27/2011 fue este, que a la postre se desarrollaría como se ha desarrollado. Y también echa de menos algo que se lee en la moción de Errenteria IrabaziZ, que es una mención a las reformas laborales, léase reformas, léase reducciones. El PP hace lo suyo, pero el PSOE también hizo lo suyo, y el PSOE lo hizo a pesar de tener una mayoría simple, con la abstención de otros partidos. Por tanto, si tienen que hablar de pensiones y de cotizaciones, cuanto



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

eta integritateagatik, aurka -bozkatuko dute bigarren puntuan KPIaz hitz egiten dutelako eta ez dutelako zoruaz hitz egiten, aurka bozkatuko dute ez dutelako aipatu 27/2011 Legea, aurka bozkatuko dute ez dutelako aipatu lan-erreforma. Eta modu positiboan egiteagatik, bozkatuko dute Errenteria IrabaziZenaren alde, uste dutelako jasotzen duela konpetentziaren inguruko aldarria, sistema propio bat sortzearen aldarria, jasotzen duelako lan-erreformen aipamena. Soilik, proposatuko luke mozio horren bigarren puntua birformulatzea, interpretatzen du hor badagoela pentsioen zorua jartzeko izpiritua, eta iruditzen zaio idazketa beste bat izan daitekeela: "*Errenteriako Udaleko Osoko Bilkurak Estatuko Gobernua premiatzen du legez ezar dezan pentsioak ez daitezela izan, inolaz ere, Europako Gutun Sozialak definitutako pobrezia atalasetik beherakoak*". Lehen esan duen moduan, Europako Gutun Soziala defendatu dute euskal gehiengo sindikalak eta Duintasunak. Hartara, ezezkoa emango diote oposizioaren mozioari, azaldutako guztiagatik, eta baiezkoa IrabaziZek aurkeztutakoari, beste idazketa hori proposatuta.

más deterioradas estén las condiciones de trabajo más flojo será el sistema de pensiones. Votarán en contra de la moción transaccional planteada por Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos y EAJ/PNV por coherencia y por integridad, votarán en contra porque en el segundo punto hablan del IPC y no mencionan un suelo mínimo, votarán en contra porque no han mencionado el 27/2011, votarán en contra porque no han mencionado la reforma laboral. Y por mostrarse de un modo positivo, votarán a favor de la moción de Errenteria IrabaziZ porque creen que recoge la reivindicación en torno a la competencia, la reivindicación por crear un sistema propio, porque recoge la mención a la reforma laboral. Unicamente propone reformular el segundo punto de esa moción, piensa que está reflejado el espíritu de establecer una cifra mínima para las pensiones, cree que el texto podría ser otro y propone la siguiente redacción para el segundo punto: "*2. El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta al Gobierno del Estado a establecer por ley que las pensiones no puedan estar, en ningún caso, por debajo del umbral de pobreza definido por la Carta Social Europea."* Como ha dicho antes, la Carta Social Europea y la propuesta han sido defendidas por la mayoría sindical vasca y por movimientos como Duintasuna. Resumiendo, voto en contra a la moción transaccional presentada por la oposición, y voto a favor a la presentada por Errenteria IrabaziZ proponiendo esa otra redacción.

* Collar jaunak (Errenteria IrabaziZ) adierazi du onartzen dutela Orereta/Errenteriako EHBilduk bere bozeramailearen bidez bigarren puntua aldatzeko egindako proposamena, komentatu duen moduan, beraiek ere uste baitute beharrezkoa dela gutxieneko oinarri bat jartzea, eta Europako Gutun Sozialari dagokionez ere ados daude. Horrez gain, komentatzen zuten bi lan-erreformak, 2010ekoa eta

* Interviene el Sr. Collar (Errenteria IrabaziZ) manifestando que asumen la propuesta que Orereta/ Errenteriako EHBildu a través de su portavoz hace para modificar el punto segundo, porque como ha comentado, también ellos creen que es necesario poner una base mínima, y sobre la Carta Social Europea también están de acuerdo. Además comentaban que las dos reformas laborales, las de

2012koa indargabetu behar zirela. Oraina jorratu behar da etorkizunari begira, pentsioen gaiak herritar guztiei eragingo dielako, eta plan pribatuen zerga arintzeekin amaitu behar da, zergek ere pentsioak ordaintzen laguntzeko, finantza-transakzio guztiak kargatu behar dira eta bankari zerga ezarri; halaber, beharrezkoa iruditzen zaie pentsio-sistemari erreforma sakona egitea. Ez da nahikoa bankari ezarritako zergarekin soilik finantzatzea, lan-erreformak ere indargabetu behar dira, aldaketa horiek burutzen ez badira pentsiodunek pobre izaten jarraituko baitute beti.

2010 y 2012, hay que derogarlas. Es necesario abordar el presente cara al futuro, porque el tema de las pensiones afectará a toda la ciudadanía y es necesario acabar con las desgrabaciones para los planes privados, también los impuestos para ayudar a costear las pensiones, que se grabaran las transacciones financieras y que el impuesto se aplicara a la banca, también creen necesaria una reforma en profundidad del sistema de las pensiones. No basta con financiarlas solo con un impuesto a la banca, sino que también tienen que entrar a derogar las reformas laborales, porque si no llevan estos cambios adelante, los pensionistas seguirán siendo pobres permanentemente.

* Palencia jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) adierazi du erdibideko zuzenketa aurkeztu dutela, eta gai honen inguruan duten iritzi orokorra markatu nahi dutela. Pentsio-sistema publikoa da birbanaketa burutzeko eta desberdintasunak gutxitzeko gaitasun handiena duen politika publikoa; politika publiko hori praktikan jarri da Alderdi Popularra gobernuan egon den urteetan. Inposaketaren bidez, beharrezko elkarrizketa sozialik gabe eta Toledoko Itunaren adostasuna bere kabuz apurtuta, Alderdi Popularrak hartutako neurriek arrisku larrian jarri dute pentsioen iraunkortasun ekonomikoa, defizita etengabea da. Bere neurriek pentsiodunak kondenatzen dituzte pixkanaka geroz eta gehiago pobretzera eros-ahalmena eta iraunkortasun-faktorea desbinkulatuta. Politika horren emaitzak bistakoak dira, PP pentsio-sistema publikoa zapaltzen ari da Gizarte Segurantzaren erreserba-funtsa etengabe espoliatuta, ziurgabetasun sozial handia sortzen duelarik. PPren gobernuak erreserba-funtsetik masiboki egin ditu erretiroak defizita konpentsatzeko: 2011 amaieran 66.815 milioi zeuden eta 8.095 milioi eurotan utzi arte xahutu dute. Arriskuan jartzen dute Gizarte Segurantzaren egungo

* Interviene el Sr. Palencia (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) señalando que han presentado la enmienda transaccional, y querían marcar su posicionamiento en general sobre este tema. El sistema público de pensiones constituye la política pública con mayor capacidad de redistribución y reducción de las desigüaldades, una política que durante los años de gobierno del Partido Popular ha sido puesta en práctica. Por la vía de la imposición, prescindiendo del necesario diálogo social y rompiendo unilateralmente el consenso del Pacto de Toledo, el Partido Popular ha adoptado medidas que han puesto en serio peligro la propia sostenibilidad económica de las pensiones con déficits constantes. Con sus medidas condenan a los pensionistas a un progresivo empobrecimiento mediante la desvinculación del poder adquisitivo y el factor de sostenibilidad. Los resultados de esta política están a la vista, el PP está laminando el sistema público de pensiones sometiendo a un expolio permanente al fondo de reserva de la Seguridad Social, creando con ello una gran incertidumbre social. Las retiradas masivas del fondo de reserva por el Gobierno del PP utilizándolo para compensar el déficit de 66.815



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

finantza-egoera eta ondorioz, egungo pentsioen bermea, baina bereziki etorkizunekoena, horregatik da ezinbestekoa sistemari egonkortasuna emango dioten neurriak hartzea. Urte hauetan guztietan Alderdi Sozialistak beste alderdi politiko eta erakunde sozial eta sindikalekin salatu izan du egoera hau, eta hainbat neurri bultzatu ditu, hala nola, 2017rako Pentsioen Nahikotasuna eta Birbalorizazioa Bermatzeko Lege Proposamena eta Gizarte Segurantza berrorekatzeko urgentziazko neurriak. Beste hainbat alderdirekin erreklamatu dute, besteak beste, datorren urterako KPIaren igoera aurreikustea Gizarte Segurantzaren sistema publikoko pentsio guztietan eta KPIa igotzea, gorako berrikuspena egitea eta Toledoko Ituna urgentziaz deitzea finantzazio osagarriko iturrien gaiari heltzeko.

Deskribatutako egoera dela-eta, urgentziaz neurriak hartu behar dira pentsioen sistema publikoaren etorkizuna bermatzeko; besteak beste, proposatzen dute 2011ko akordiora itzultzea eta 2011-2015 legegintzaldian egindako aldaketa guztiak indargabetzea: erretiro aurreratuaren 5/2013 ELDko arautzea eta 23/2013 Lege osoa (Gizarte Segurantzaren Pentsio Sistemaren Jasangarritasun Faktorea eta Errebalorizazio Indizea arautzen dituena). Pertsonen erosahalmena bermatzea, pentsioak KPIaren arabera eguneratuta. Desegitea PPk 23/2013 Legean ezarritako iraunkortasun-faktorea, erretiro-pentsioak gutxituko baititu mozketako bizi-itxaropenaren arabera 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera. Iruditzen zaie pentsioak eskuratzeak eskubide instituzionala izan behar duela eta horrela jaso behar dela proposatzen duten Magna Cartaren erreforman. Horretarako, planteatzen dituzte pentsio-sistema publikoa bermatzera bideratutako neurriak, Toledoko Ituna eta elkarrizketa soziala berreskuratuta, lan-eskubideak eta kalitatezko enplegua sustatuko dituen langileen

millones de euros a finales de 2011 lo han exprimido hasta dejarlo en 8.095 millones de euros. Ponen en riesgo la situación financiera de la Seguridad Social y en consecuencia la garantía, no solo de las pensiones actuales, sino también especialmente de las pensiones futuras, por eso es imprescindible adoptar medidas que den estabilidad al sistema. Durante todos estos años el Partido Socialista ha venido denunciando junto a otros partidos políticos y organizaciones sociales y sindicales esta situación, promoviendo distintas medidas como la Proposición de Ley para la Garantía de Suficiencia y Revalorización de las Pensiones para el año 2017 y de medidas urgentes para el reequilibrio de la Seguridad Social. Con otras formaciones reclamaban, entre otras cuestiones, incremento de la

previsión del IPC para el año próximo para todas las pensiones públicas del sistema de la Seguridad Social e incremento del IPC, revisión automática al alza y la convocatoria urgente del Pacto de Toledo para abordar fuentes de financiación adicionales. Dada la situación descrita se hace necesario adoptar urgentemente medidas destinadas a garantizar el futuro del sistema público de pensiones, entre otras proponen volver al consenso de 2011 derogando todos los cambios legales introducidos a lo largo de la legislatura 2011-2015: la regulación de la jubilación anticipada del RDL 5/2013 y, de forma íntegra, la Ley 23/2013, reguladora del Factor de Sostenibilidad y del Índice de Revalorización del Sistema de Pensiones de la Seguridad Social. Garantizar el poder adquisitivo de las pensiones, recuperando la actualización de las mismas conforme al IPC. Eliminar el factor de sostenibilidad establecido por el PP en la Ley 23/2013, que reducirá las pensiones de jubilación en función de la esperanza de vida de corte correspondiente a partir del 1 de enero de 2019. Consideran que el acceso a



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

estatutu berria onartuta, eta pentsioak finantzatzeko iturri osagarria ezarrita aurrekontu orokorren kontura, gure inguruko herrialde gehienetan bezala. Sistemaren babes-izaera hobetzea erreserba-funtsaren afekzioa hobetuta erregulazioa hobetzearen bidez, gehiegi erabiltzea saihesteko xedez. Berriz ere jarri beharko da urtero erabil daitezkeen funtsen muga, PPk kendu baitzuen 2012an. Berariazko neurriak hartzea pixkana desagerrarazten joateko gizonen eta emakumeen pentsioen arteko % 40 inguruko tartea. Amaitzeko, bi eredu daude, bata, Alderdi Popularrak proposatzen duena, oreka lortzen duena gastuaren aldetik, pentsioak murriztuta, eta, ondorioz, pentsiodunak pobretuta pentsioak % 0,25 birbalorizatzea bezalako neurriekin, iraunkortasun faktorea sartuta eta erretirorako sistema pribatuak lagunduta. Bestea, Alderdi Sozialistak defendatzen duena: pentsioetako gastua mantentzea, beste gastu-partida batzuk arrazionalizatzea eta sistemaren sarrerak handitzea. Hori da beren jarrera. Esan duen moduan, erdibideko beste mozio bat aurkeztu dute eta horren alde bozkatuko dute.

las pensiones debe considerarse un derecho constitucional y ser incorporado como tal en la reforma de la Carta Magna que proponen. Para ello plantean medidas destinadas a garantizar el sistema público de pensiones recuperando el Pacto de Toledo y el diálogo social, aprobando un nuevo estatuto de los trabajadores que promueva derechos laborales y empleo de calidad, y estableciendo una fuente complementaria de financiación de las pensiones a cargo de los presupuestos generales como en la mayoría de los países de nuestro entorno. Mejorar la naturaleza protectora del sistema modernizando la afección del fondo de reserva a través de una mejora de su regulación y con el objetivo de evitar el uso abusivo del mismo. Se deberá volver a establecer un límite a la disposición de fondos con carácter anual, que fue eliminado por el PP desde 2012. Adoptar medidas específicas para ir eliminando progresivamente la brecha cercana al 40% existente entre la cuantía de las pensiones de los hombres y las mujeres. Como conclusión existen dos modelos, uno el que propone el Partido Popular consistente en lograr el equilibrio por el lado del gasto, recortando las pensiones y por tanto, empobreciendo a los pensionistas con medidas como la revalorización suficiente y constante de las pensiones al 0,25%, la inclusión del factor de sostenibilidad y el favorecimiento de los sistemas privados de jubilación. Otro, el que defiende el Partido Socialista, que cosiste en mantener el gasto en pensiones, racionalizar otras partidas de gasto e incrementar los ingresos del sistema. Este es su posicionamiento, como ha dicho han presentado otra moción transaccionada y van a votar a favor de la misma.

* Collar jaunak (Errenteria IrabaziZ) komentatu nahi du PSE eta EAJk aurkeztutako mozioaren aurka

* El Sr. Collar (Errenteria IrabaziZ) quiere comentar que votarán en contra de la moción del PSE y PNV.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

bozkatuko dutela. Nahiz eta zenbait punturekin ados egon, iruditzen zaie bi kontu falta direla: pentsioetarako gutxieneko zorua jartzea eta lan-erreformaren gaia.

Aunque están de acuerdo en alguno de sus puntos, creen que faltan dos cuestiones: poner un suelo mínimo para las pensiones y la cuestión de la reforma laboral.

* Publikotik Alfredo Rodriguez San Juanek hartu du hitza Duintasuna pentsiodun eta erretiratuen elkartearen izenean, eta idatzi hau irakurri du gaztelaniaz: Euskal Herriko erretiratuen plataformak komunikatu bat aurkeztu du prentsan errebindikatzeko erosahalmenarekin apurtzeko % 0,25eko igoera eta gutxieneko pentsioa 1.080 eurotan ezartzea. Errenteriako Duintasuna gaur, 2018ko urtarrilaren 29an, enteratu da Errenteriako Udaleko alderdi politikoek pentsioen inguruko mozioak aurkeztu dituztela eta ez daudela ados % 0,25eko igoerarekin, bitxia! oso ondo iruditzen zaigu % 0,25eko igoera ziztrinaren aurka egotea, bada garaia pairatzen ari garen egoeraz kontura zaitezten, eta tristea ere bada orain konturatzea; eta ez dugu alargunen egoera aipatuko, eskandaluzkoa baita. Duintasunak, herriko beste hainbat biztanlek bezalaxe, 4 urte daramatza, eta badira urteak, errebindikatzen farmaziako kopagoa eta % 0,25eko igoera ez direla bidezkoak, eta ez duzue zirkinik ere egin, EAJ – PSOE. Eta zer gertatu da orain? Hauteskundeak datozela eta jendea zuen alde izan nahi duzuela? ba gauzak ez dira horrela, abandonatuta izan gaituzue. EAJ – PSOE alderdie esan nahi diegu ─PP alde batera utziko dugu─, Eusko Jaurlaritzan, bai eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan ere, kopagoari eta pentsioei buruzko mozioak aurkeztu direnean EH Bildu eta Podemosen bitartez, ez dituzuela onartu eta Eusko Legebiltzarrean 43.600 sinadura aurkeztuta ere, ez zenietela hitz egiten edo gaia aztertzen ere utzi. 2013/11/21ean izan zen hori. Erretiratuok badugu oroimena eta ibilbide luze honetan askotan esan dugu, pentsioak lapurtzen dizkigutenei ez diegula

* Interviene desde el público Alfredo Rodriguez San Juan en representación de Duintasuna Elkartea Pensionistas y Jubilados, dando lectura al siguiente escrito: La plataforma de jubilados y jubiladas de Euskal Herria han presentado un comunicado a la prensa revindicando el poder adquisitivo para romper la subida del 0,25% y establecer la pensión mínima en 1.080 euros. Duintasua de Errenteria a día de hoy, 29 de enero de 2018, se entera de que los Partidos Políticos en el Ayuntamiento de Errenteria presentan mociones sobre las pensiones y de no estar de acuerdo con la aplicación del 0,25%, ¡curioso!. Vemos muy bien que estén en contra de la mísera subida del 0,25%, ya es hora y a la vez triste que ahora os deis cuenta de la situación que estamos padeciendo, y no hablemos de las viudas, es escandaloso. Duintasuna, al igual que muchos vecinos y vecinas de este Pueblo venimos desde hace tiempo, 4 años, que ya es decir, reivindicando el no al copago farmacéutico y a la mísera subida del 0,25% y no habéis movido ni un dedo, PNV – PSOE. ¿Qué pasa ahora?, ¿que vienen elecciones y queréis ganaros a la gente?, pues no es así, nos habéis tenido abandonados. A los Partidos PNV – PSOE, al PP lo dejamos aparte, pero a vosotros hay que deciros que en el Parlamento Vasco, al igual que en la Juntas Generales de Gipuzkoa, cuando se han presentado mociones sobre el copago y pensiones a través de EH Bildu y Podemos, no las habeís aprobado e incluso en el Parlamento Vasco cuando se presentaron 43.600 firmas, no les dejasteis ni hablar, ni tratarlas. Esto fue el 21/11/2013. Los jubilados y jubiladas tenemos memoria y en este largo recorrido

boto bakar bat ere emango, eta hemen errudun asko daude, ez da Alderdi Popularra soilik. Kalean urte asko daramatzagu kopagoaren, pentsioen murrizketen eta sanitatearen eta erresidentzien egoeraren inguruan errebindikazioak burutzen; sistema honekin ez dago erresidentzia batean sartzeko luxuari aurre egin diezaiokeenik. Horregatik jarraituko dugu gure eskubideen alde borrokan; 1.080 euroko pentsio duinak, Europako gutun Sozialak esaten duen moduan, eta Euskal Herriarentzat gizarte-segurantzako sistema propioa.

* Publikotik Timoteo Zárate Bargok hartu du hitza, adierazteko aurreko kideak esandakoaren ildoan, testu hau irakurriko duela (gaztelaniaz): Egunez egun agerikoagoa eta handiagoa da PPren gobernuak pentsioak % 0,25 igotzearen ondorioz haserrealdia eta sumina, eragiten baitu erosahalmena ikaragarri galtzea eta pobrezia eta desberdintasuna handitzea. Pentsioen % 0,25eko igoeraren aurka hainbat deialdi pizten ari dira sare sozialetan udaletxeen eta erakundeen aurrean kontzentrazioak egiteko; deialdia egiten dutenak ez dira erakunde edo talde jakinak eta ez dute errebindikazioko taularik edo punturik aurkezten, eta hala ere lortzen ari dira jarraipen handia izatea, % 0,25eko igoera iskanbila handia sortzen ari baita pentsiodun eta erretiratuen kolektiboan. Mobilizazio horiek ez zaizkie oharkabean pasatzen alderdi politikoei eta saiatzen dira jarrera berria hartzen udal- eta foru-hauteskundeak gertu daudelako, eta PP uzten % 0,25eko igoeraren arduradun eta erantzule bakar gisa, nahiz eta orain arte hirurek, PP, PSOE eta EAJk, parte hartu duten eta babestu duten pentsiodunen baldintzen okertzean. Gogoratu nahi dut gehien zigortzen den kolektiboa arlo guztietan dela emakume pentsiodunena. Eta adibide batzuk emango ditut: Zapatero presidentea, 27/2011 Legea, langileria pobretzen duen itzuli berria, kasu honetan

lo hemos dicho muchas veces a, a los que nos roban las pensiones ni un voto y aquí hay muchos culpables, no solo el Partido Popular. En estos muchos años que llevamos reclamando en la calle, no al copago, no a los recortes en pensiones, en sanidad, ¿residencias,? con este sistema no hay quien se pueda permitir el lujo de acceder a una. Por eso vamos a seguir luchando por nuestros derechos, pensiones dignas de 1.080 euros, como dice la carta social europea y un sistema propio de seguridad social para Euskal Herria.

* Interviene desde el público Timoteo Zárate Bargo señalando que siguiendo con lo manifestado por el compañero anterior va a dar lectura al siguiente texto: Cada día es mas palpable y va en aumento el cabreo e indignación por el incremento del 0,25% a las pensiones que realiza el Gobierno del PP, que conlleva una pérdida galopante del poder adquisitivo, aumento de la pobreza y desigualdad. Contra la subida del 0,25% a las pensiones están surgiendo una serie de convocatorias en las redes sociales llamando a concentrarse delante de ayuntamientos e instituciones, quienes sin identificarse como organización ni grupo que las promueva, ni presentar tabla o punto reivindicativo alguno, están consiguiendo aglutinar y tener un seguimiento muy importante, ante el expolio que la subida del 0,25% está generando en el colectivo de pensionistas y jubilados. Estas movilizaciones que se están produciendo no pasan desapercibidas a los Partidos Políticos, por lo que intentan resituarse ante la proximidad de Elecciones Municipales y Forales y dejar al PP como único causante y responsable de la subida del 0,25%, cuando hasta ahora los tres, PP, PSOE y PNV han participado y apoyado en el deterioro y empeoramiento de las condiciones de los pensionistas, queriendo recordar que las más castigadas en todos los aspectos es el colectivo de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

pentsiodunak eta erretiratuak izan ziren. Erreforma horrek eragin zuen hainbat greba orokorretarako deialdiak burutzea eragile sindikal eta sozialek Euskal Herrian, eta erreforma Kongresuan onartu zen EAJren aldeko botoekin. Gastuaren Legea, 2011ko iraila. Espainiako Konstituzioaren 135. artikuluaren aldaketa, eta guztiek dakite horrek zer eragiten duen, PSOE-PPk onartu zuten. Aurrekontuen Zuzentarau markoa, 2011ko azaroa. Egonkortasunerako eta Hazkunderako Ituna Europar Batasunean 2012ko martxoan, PP, PSOE eta EAJ. 2012ko apirila, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Legea, PP. 2012ko ekaina, Gobernuak sinatu zuen elkar ulertzeko memoranduma, ezartzen zituena edozeinek gobernatzen zuela ere bete beharreko hainbat betebehar, erreskatatu egin baikintuzten. Gaineratu behar da Karta Soziala oinarri hartuta, Duintasunak LEH bat aurkeztu zuela Eusko Legebiltzarrean 1.080 euroko gutxieneko pentsioaren alde, hori baita Euskal Autonomia Erkidegoan egokituko litzatekeena Barne Produktu Gordinaren arabera eta utziko gintuzkeena, ozta-ozta, Europako erakunde ekonomikoek zehaztutako pobrezia-atalasearen gainetik. 71.700 sinadura bildu ziren eta Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zuten eztabaida zezaten, eta EAJ, PSOE eta PPk aurka bozkatu zutenean, azalpen hori izapidetu eta eztabaidatzeko aukera ezetsi zuten. Horregatik ez ditut sinisten Udalbatzara ekarri dituzten mozioak, pentsiodunak iraindu dituztela iruditzen zait. Ahal Duguren mozioari dagokionez, ikusi du zerbait aldatu dela, esan behar dut ez dutela ulertzen zer esan nahi duen aipatzen dituenean pentsioak ordaintzeko maileguak, Europar Batasun Ekonomikoan bateratzen baitira kotizazioak Aurrekontu Orokorrekin, alegia, aurrekontu orokorrak badaude, ez dago zertan mailegurik izan. Mozioaren 2. puntuari dagokionez, hor ere aldaketa egon da, eta

pensionistas de mujeres. Y voy a poner algunos ejemplos: Presidente Zapatero, Ley 27/2011, una vuelta de tuerca que empobrece a la clase trabajadora, en este caso a pensionistas y jubilados. Esta reforma conllevó varias convocatorias de huelga general por los agentes sindicales y sociales en Euskal Herria, se aprobó en el Congreso con los votos a favor del PNV. Ley de Gasto Septiembre 2011. Modificación art 135 de la Costitución Española, que todos saben lo que conlleva, aprobada por el PSOE-PP. Directiva Marco Presupuestaria, noviembre 2011. Pactos Estabilidad y Crecimiento en la Unión Europea en marzo de 2012, PP, PSOE y PNV. Abril 2012, Ley de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, PP. Junio de 2012, el Gobierno firma memorandum de entendimiento que dicta una serie de obligaciones, gobierne quien gobierne, porque estamos rescatados. Añadir que en base a la Carta Social, Duintasuna presenta una I.L.P. en el Parlamento Vasco, por una pensión mínima de 1.080 € que correspondería a la Comunidad Autonoma Vasca en base al Producto Interior Bruto y que nos situaría, por muy poco, encima del umbral de pobreza que determinan desde las instituciones económicas europeas. Se realizó una recogida y entrega en el Parlamento Vasco de 71.700 firmas para su discusión y explicación que el PNV, PSOE y PP, con su voto en contra, se niegan a que pueda ser tramitada y discutida. Por estos motivos no me creo las mociones que traen a este Pleno, un insulto a los pensionistas. En cuanto a la moción de Podemos, ha visto que se ha reformado algo, teníamos que decir que no la entendemos cuando nos habla de préstamos para el pago de pensiones, ya que en la Unión Económica Europea se combinan cotizaciones con los Presupuestos Generales, osea que si hay presupuestos generales, no tiene por qué

esan behar dute ez zutela ulertzen, KPIaren igoera sinatu baitute CC.OO. eta UGT sindikatuek, betiere hainbat baldintza betetzearen baldintzapean, eta baldintze horiek dira KPIa igotzea % 2,5 baino gehiago, ez bada hainbeste igotzen Lanbidearteko Gutxieneko Soldata izoztu egingo da, horregatik ez zaie egingarria iruditzen puntu hori. Udalbatzari proposamena egiten zioten 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzeko, urtero pentsioak igotzea KPIaren arabera, Gizarte Segurantzaren transferentzia eta kudeaketa osoa eskualdatzea, eta pentsio-sistema publiko bat sortzea herritarren parte-hartzearekin. PSOEk nahiz PPk egindako erreformak indargabetzea, alegia, pentsioei eta etorkizuneko pentsiodunei eragiten dietenak.

* Publikotik hitza hartu du José Mª Uria Duintasunako kideak, eta idatzi hau irakurri du gaztelaniaz: Guk, Duintasuna erretiratuen eta pentsiodunen elkarteak, zuen mozioetan faltan botatzen dugu pentsioetan gertatzen den genero-tarteari buruzko aipamena. Alegia, emakumeen pentsioen batezbesteko zenbatekoa dela gizonezkoena baino % 34 txikiagoa, eta horrek azaltzen du zergatik emakumeek dituzten gizonek baino soldata txikiagoak, baita ere emakumeek zaintza-jardueretan denbora gehiago emateak eragin negatiboa duela emakumeen pentsioetan, eta hori kontuan izan beharko litzatekeela. Bestalde, pentsio publikoen gastu publikoak BPGaren gainean duen portzentajea Espainiako estatuan, bai eta Euskal Autonomia erkidegoan ere, Frantzian, Alemanian edo Italian baino hainbat puntu (4) baxuagoa da. Ez duzue ezer esaten PP eta EAJ alderdiek pentsio publikoen beherakadaren inguruko diskurtsoan, haien aukera da beherakada hori konpentsatzea pentsio pribatuekin, eta pentsio horiek izaten dituzte

haber ningún préstamo. En cuanto al punto 2 de la moción, donde también ha habido cambio, también tienen que decir que no la entendían ya que el incremento del IPC ha sido firmado por los Sindicatos CC.OO. y UGT siempre que se den unas condiciones, y las condiciones establecidas son que el PIB suba por encima del 2,5%, si no lo hace habrá congelación del Salario Mínimo Interprofesional, por esto no veían factible este punto. Como propuesta a este Pleno, traían la pensión mínima de 1.080 euros, Subida anual de pensiones en base al IPC, Traslado y gestión en su totalidad de la Transferencia de la Seguridad Social y creación de un sistema público de pensiones con la participación de la ciudadanía. Derogación de las diferentes reformas, tanto del PSOE, como del PP, que afectan a las pensiones y futuros pensionistas.

* Interviene desde el público José Mº Uria también miembro de Duintasuna dando lectura al siguiente escrito: “nosotros, la Asociación de Jubilados y Pensionistas de Gipuzkoa Duintasuna echamos en falta en vuestras mociones la falta de mención a la brecha de género de las pensiones. Es decir, la menor cuantía media de las pensiones de las mujeres que es un 34% menor que las de los hombres, lo que explica el por qué de menores salarios de las mujeres con respecto a los hombres, así como la mayor dedicación de las mujeres a actividades de cuidados que repercute negativamente en las pensiones de las mujeres y que debería ser tenido en cuenta. Por otro lado, el gasto público en pensiones sobre el PIB en el Estado Español, incluida la Comunidad Autónoma Vasca, es varios puntos (4) más bajo que en Francia, Alemania o Italia. Tampoco decís nada al discurso de los partidos PP y PNV sobre la caída de las pensiones públicas, la alternativa de ellos es compensar esa caída mediante las pensiones

errendimendu txikia, kudeaketa-gastu handiak eta gainera, porrota gertatuz gero, banka-erakundeek eta pentsio-funts pribatuek ez dute ezeren erantzukizunik hartzen (adibidea: Txile). Horretan laguntzen dute finantza- eta enpresa-erakundeek alderdi horiek presionatzea abantailak eta zerga-arinketak ezartzeko pentsio pribatuetarako, pentsio publikoetarako beharrean. Azkenik, ez duzue ezer esaten enpresariei kenkariak eta hobariak ematearen inguruan, guztia ere enplegua hobetzeko aitzakiapean; horiek urtean 3.500 milioi gutxiago sartzen dituzte Gizarte Segurantzan. Ez zarete zintzoak eta ez duzue salatzen ezkutuko ekonomia edo aparteko orduen mugak gainditzen direla ere, eta horiek ere eragin negatiboa dute.

privadas que aportan escaso rendimiento, excesivos gastos de gestión y además las entidades bancarias y los fondos de pensiones privadas en caso de quiebra, no se responsabilizan de nada (ejemplo Chile). A ello colaboran las instituciones financieras y empresariales que presionan a todos estos partidos para desarrollar más ventajas y desgravaciones fiscales que favorezcan las pensiones privadas en detrimento de las pensiones públicas. Por último, no decís nada con respecto a la concesión de reducciones y bonificaciones sociales a los empresarios, con el pretexto de mejora de empleo y que suponen una merma de 3.500 millones de euros anuales a los ingresos de la Seguridad Social. Ni tampoco tenéis honradez de denunciar lo relativo a la economía sumergida y la vulneración de los límites sobre las horas extraordinarias, que también repercute negativamente.

* Collar jaunak (Errenteria IrabaziZ) aipatu du, Alfredo Rodríguezek alargun-pentsioak ez dituztela aipatzen esandakoaren inguruan ñabardura bat egin nahi duela, eta esan mozioaren bosgarren puntuan jasota dagoela.

* El Sr. Collar (Errenteria IrabaziZ), en relación al comentario de Alfredo Rodríguez de que no se dice nada sobre las pensiones de viudedad, quiere matizar que en el punto número cinco de la moción viene recogido.

Adierazpenak egin eta gero.

Finalizadas las intervenciones.

Ondoren bozkatu egin da Errenteria IrabaziZek pentsioen etorkizunari buruz aurkeztutako mozioa, Gracia jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) proposatutako aldaketa barne hartzen duena. Aldaketa hori mozioaren xedapen zatiaren 2. puntua aldatzeari buruzkoa da eta honela idatziko da: "*Errenteriako Udaleko Osoko Bilkurak Estatuko Gobernua premiatzen du legez ezar dezan pentsioak ez daitezela izan, inolaz ere, Europako Gutun Sozialak definitutako pobrezia atalasetik beherakoak".*

Sometida a votación la Moción sobre el futuro de las pensiones presentada por Errenteria IrabaziZ, incluída la modificación propuesta por el Sr. Gracia (Orereta/Errenteriako EHBildu) de modificar el punto segundo de la parte dispositiva de la moción que queda redactado de la siguiente manera: *"2. El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta al Gobierno del Estado a establecer por ley que las pensiones no puedan estar, en ningún caso, por debajo del umbral de pobreza definido por la Carta Social Europea."*

Udalbatzak, aldeko 11 botoren gehiengoarekin (O.E EHBILDU, Errenteria IrabaziZ), aurkako 7 botorekin (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) eta 3 abstentziorekin ( EAJ/PNV),

**ERABAKI DU**

**Onartzea** Errenteria IrabaziZek pentsioen etorkizunari buruz aurkeztu duen mozioa, Gracia jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) proposatutako aldaketa barne hartzen duena, ondorengoari jarraiki:

**JUSTIFIKATZEA**

Gizarte Segurantzak duen defizit egoera dela eta, aurten ere, sistemarenak ez diren baliabideak erabili behar izango dira pentsiodunei aparteko bi pagak ordaintzeko. 2017an, Estatuaren maileguaz gain, 7.100 milioi atera ziren pentsioen Erreserba Funtsetik.

2018ko Estatuko Aurrekontu Orokorrek (oraindik onartu gabeak) 15.000 milioiko maileguaren beharra aurreikusi dute pentsioak ordaintzeko, Ogasunak Gizarte Segurantzari berriro emango diona, 2017an transferitu zizkion 10.192 milioietatik aparte.

Diru-kopuru hori nahikoa izango litzateke aurtengo pagak ordaintzeko eta ez ukitzeko Erreserba Funtsean geratzen den apurra, 8.000 milioi inguru. Egia esan, Gobernuak funtsean geratzen den apur hori erabili ahal izango luke eta kopuru hori bera gutxitu ahal izango lioke Gizarte Segurantzaren maileguari. Baina badago itxura kontu bat hori guztia geldiarazten duena: komunikabideetan erreserba funtsa agortu dela ez agertzeko nahia; izan ere, horrek oso urduri jarriko lituzke ia bederatzi milioi pentsiodunak.

El Pleno de la Corporación por mayoría de 11 votos a favor (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ), 7 votos en contra (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) y 3 abstenciones (EAJ/PNV),

**A C U E R D A**

**Aprobar** la Moción sobre el futuro de las pensiones presentadas por Errenteria IrabaziZ, incluída la modificación propuesta por el Sr. Gracia (Orereta/Errenteriako EHBildu), que queda redactada en los siguientes términos:

**JUSTIFICACIÓN**

La situación de déficit de la Seguridad Social obligará de nuevo este año a utilizar recursos ajenos al propio sistema para pagar las dos pagas extra que reciben los pensionistas. En 2017, además del préstamo del Estado se sacaron 7.100 millones del Fondo de Reserva de las pensiones.

Los Presupuestos Generales del Estado para 2018 (todavía no aprobados) contemplan un crédito de 15.000 millones de Hacienda a la Seguridad Social, para el pago de las pensiones, tras los 10.192 millones que ya le transfirió en 2017.

Con esta cantidad sería suficiente para pagarlas este año y no tocar lo poco que queda del Fondo de Reserva, unos 8.000 millones. En realidad, el Gobierno podría utilizar lo que queda del fondo y reducir en la misma cantidad el crédito a la Seguridad Social. Pero hay una cuestión de imagen que lo frena: no querer que aparezca en los medios de comunicación que el fondo de reserva se ha agotado, lo que pondría muy nerviosas a los casi nueve millones de personas pensionistas.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Gizarte Segurantzaren sistemak 19.455.384 kotizatzaile eta 8.705.707 pentsiodun zituen joan den urteko itxiera garaian; hau da, gizarte segurantzan afiliatutako 2,23 pertsona, pentsioren bat jasotzen duen pertsona bakoitzeko eta hori, daturik txarrena da 1999tik honako historian zehar. Kotizatzaile eta pentsiodunen arteko orekak okerrera egin du 2016koarekin alderatuz gero. Orduan, 2,27 kotizatzaile ziren erretiratu bakoitzeko. Ordutik hona, pentsiodunen kopurua 96.000tik gora handitu den bitartean, kotizatzaileen kopuruak (langileak eta langabetuak) 129.271 pertsonatan gutxitu da.

El sistema de la Seguridad Social contaba con 19.455.384 cotizantes y 8.705.707 pensionistas a cierre del año pasado, lo que da 2,23 personas afiliadas a la seguridad social, por cada persona perceptora de una pensión, marcando así el peor dato de la serie histórica desde 1999. El equilibrio entre cotizantes y pensionistas ha empeorado respecto a 2016, cuando se situaba en 2,27 cotizantes por persona jubilada, debido a que, mientras que el número de pensionistas ha aumentado en más de 96.000, el de cotizantes (trabajadoras y desempleadas) ha disminuido en 129.271 personas.

2017ko itxiera garaian zeuden 8,7 milioi pentsiodunen artean, gehiengoak, 5,7 milioik, erretiro pentsioa jasotzen zuen, 1,7 milioik alarguntza pentsioa, 942.000 lagunek ezintasun iraunkorrekoa, 323.000 lagunek umezurtz pentsioa eta ia 40.000 lagunek familiartekoen aldeko pentsioa.

De los 8,7 millones de pensionistas a cierre de 2017, la mayor parte, 5,7 millones, eran perceptoras de una pensión de jubilación, mientras que 1,7 millones eran de viudedad, 942.000 de incapacidad permanente, 323.000 de orfandad y casi 40.000 a favor familiar.

Egoera hori PPko Gobernuak duen paralisiaren isla da, pentsioen etorkizuna bermatzeko neurriei eta erreformei ekiteko paralisiarena. Espainiako Gobernuak “zunda-globoak” bota besterik ez du egiten.

Esta situación es un reflejo de la parálisis del Gobierno del PP para abordar medidas y reformas que garanticen el futuro de las pensiones. El Gobierno Español no está haciendo nada más que lanzar “globos sonda”.

Azken bi urteotan, mendebaldeko herrialde batzuek zergak ordaintzeko mailaketa aldatu zuten eta beste batzuek, aldiz, pentsioa jasotzeari erantsitako abantailak aldatu zituzten. ELGEk egindako estimazioen arabera, 2050ean, Espainiako Estatua izango da munduan pentsiodun proportziorik handiena izango duena lan egiteko adina duen populazioarekiko. Gure parean Japonia baino ez da egongo.

Durante los dos últimos años, una parte de los países occidentales cambiaron los niveles de contribución y otra parte modificaron los beneficios asociados para percibir una pensión. Las reformas pendientes en el Estado son críticas, como en pocos países. De acuerdo con las estimaciones de la OCDE, el Estado Español será en el año 2050 el lugar con mayor proporción de pensionistas en relación con la población en edad de trabajar, en el mundo. Sólo Japón nos igualará.

Gai horretan, eta beste batzuetan ere, arazoak epe

En este aspecto, como en otros, posponer las



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

luzean konpontzeko neurriak atzeratzeak, arazo horiek okerragotzea besterik ez du eragiten, baita etorkizunean konpontzen zailagoak izan daitezela ere.

medidas que resuelvan problemas a largo plazo solo hace empeorar esos mismos problemas, que serán más costosos de resolver en el futuro.

Ereduaren berrikuspen horrek, zalantzarik gabe, autonomia erkidegoen eta pentsiodunen partaidetza behar du. Partaidetza horrek bidezkoa eta nahikoa izan beharko du pentsiodunen behar materialak asebeteko dituela bermatzeko, genero ikuspegia txertatzeko eta egungo finantza eredua zalantzan jartzeko; bai gizarte segurantzarekiko enpresek dituzten hobariei dagokienean, bai lurralde arteko elkartasunari dagokionean ere. Gainera, beharrezkoa da luzaro gabe exijitzea egungo Gernikako Estatutuaren 18.2 artikulua bete dezaten, Euskadiren kasuan; hain zuzen ere, Gizarte Segurantzaren alorrean eskumenak transferitzea azaltzen duen artikulua.

Esta revisión del modelo ha de ser, sin duda: participada por parte de las autonomías y de las personas pensionistas, justa y suficiente para garantizar la cobertura material de la vida de las personas pensionistas, con perspectiva de género y poniendo en cuestión el actual modelo de financiación, tanto a nivel de bonificaciones a la seguridad social por parte de las empresas, como en lo que tiene que ver con la solidaridad interterritorial. Además, es preciso exigir, sin más demora, el cumplimiento del artículo 18.2. del actual Estatuto de Gernika en el caso de Euskadi, que plantea la transferencia de competencias en materia de Seguridad Social.

Horregatik guztiagatik aurkezten dugu ondorengo

Es por ello, por lo que presentamos la siguiente:

**MOZIOA**

**MOCIÓN**

1- Errenteriako Udaleko Osoko Bilkurak Estatuko Gobernua premiatzen du indargabetu dezan Pentsioen Erreforma, 23/2013 Legea, Gizarte Segurantzaren Pentsio Sistemaren Jasangarritasun Faktorea eta Errebalorizazio Indizea arautzen dituen legeak onartutakoa, urtero KPIren igoera bera duen pentsio duina bermatzen jarraitu ahal izateko.

1- El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta al Gobierno del Estado a la derogación de la Reforma de las Pensiones aprobada por la Ley 23/2013 Reguladora del Factor de Sostenibilidad y del Índice de Revalorización de las Pensiones, para seguir garantizando una pensión digna que suba anualmente lo mismo que el IPC.

2- Errenteriako Udaleko Osoko Bilkurak Estatuko Gobernua premiatzen du legez ezar dezan pentsioak ez daitezela izan, inolaz ere, Europako Gutun Sozialak definitutako pobrezia atalasetik beherakoak.

2- El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta al Gobierno del Estado a establecer por ley que las pensiones no puedan estar, en ningún caso, por debajo del umbral de pobreza definido por la Carta Social Europea.

3- Errenteriako Udaleko Osoko Bilkurak Estatuko

3- El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta al



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Gobernua premiatzen du legez debeka dezan, kotizazioen defizit egoerak direla eta, Pentsioen Erreserba Funtsa libre erabili ahal izatea (lan erreformak ezabatutako %3ko muga berreskuratuz).

Gobierno del Estado a que se prohíba por ley la libre disposición (recuperando el tope del 3% eliminado por la reforma laboral) del Fondo de Reserva de las Pensiones para situaciones de déficit de cotizaciones.

4- Errenteriako Udaleko Osoko Bilkurak Estatuko Gobernua premiatzen du, Toledoko Itunaren baitan eta Autonomia Erkidegoen partaidetza bermatuta, bakoitzaren eskumenei arreta berezia jar diezaien, bereziki Euskadik eta Kataluniak transferitzeke dituztenei. Halaber, pentsiodunek ere parte hartu beharko dute hausnarketa partekatu batean Estatuaren Aurrekontu Orokorretan zuzenean finantzabideak bilatzeko; hain zuzen ere, honako xede hauek izango dituzten finantzabideak: ezabatzea Gizarte Segurantzarekiko enpresek dituzten kotizazio murrizketak eta hobariak, hobari fiskalen gaineko neurriak kentzea pentsio plan pribatuetatik, aurreikuspen sozialeko sistemen erreformetatik deuseztatzea lan-bizitza luzatze aldera ezarritako neurriak. Labur esanda, lurraldeen eta belaunaldien arteko elkartasun printzipioetan oinarri daitezela.

4- El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta al Gobierno del Estado a que, en el seno del Pacto de Toledo y garantizando la participación de las Comunidades Autónomas, con especial atención a las competencias de cada una de ellas, y en concreto, de las pendientes de transferir en Euskadi y Cataluña. Asimismo, se contará con la participación de las personas pensionistas, en el abordaje de una reflexión compartida que busque vías de financiación directas desde los Presupuestos Generales del Estado que se traduzcan en: la eliminación de las bonificaciones y reducciones de la cotización de las empresas en la Seguridad Social, la eliminación de las medidas de bonificación fiscal de los planes privados de pensiones, la eliminación de las medidas establecidas en las reformas del sistema de previsión social encaminadas al alargamiento de la vida laboral y que, en definitiva, se centren en los principios de solidaridad intergeneracional e interterritorial.

5- Errenteriako Udaleko Osoko Bilkurak Estatuko Gobernua premiatzen du alarguntza pentsioak hobe diezazkien beste pentsio publikorik jasotzeko eskubiderik ez duten hartzaileei, norbere kontura edo besteren kontura egindako lanagatik diru-sarrerarik ez dutenei eta aipatutako horiek ez diren bestelako errentek eragindako etekinik ez dutenei; betiere, alarguntza pentsio minimoa jaso ahal izateko, une oro ezarrita dagoen diru-sarrera muga gainditzen ez badute.

5- El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta al Gobierno del Estado a la mejora de las pensiones de viudedad para las personas perceptoras que no tengan derecho a otra pensión pública, no perciban ingresos por la realización de trabajo por cuenta ajena o por cuenta propia, o rendimientos de rentas diferentes a los señalados anteriormente que superen, en cómputo anual , el límite de ingresos que esté establecido en cada momento para ser persona beneficiaria de la pensión mínima de viudedad.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

6- Errenteriako Udaleko Osoko Bilkurak Estatuko Gobernua premiatzen du indargabetu ditzan bi Lan Erreformak, 2010ekoa eta 2012koa. Izan ere, enpleguaren kalitatearen gainean izan dituzten ondorio ezin txarragoek, arriskuan jarri ohi dituzte pentsioen iraunkortasuna eta etorkizuna. Era berean, eskatzen diogu beste enplegu eredu baten aldeko apustua egin dezan, bizitzaren iraunkortasunerako beharrezkoak diren beste espazio batzuetan oinarritzen dena; hala nola, zaintza lanak, energia garbiak eta abar.

6- El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta al Gobierno del Estado a la derogación de las dos Reformas Laborales, las de 2010 y 2012, debido a que sus nefastas consecuencias para la calidad del empleo ponen en grave riesgo la sostenibilidad y el futuro de las pensiones. Asimismo, se insta a que apueste por un modelo de empleo centrado en otros espacios necesarios para el sostenimiento de la vida como los cuidados, las energías limpias, etc.

Jarraian:

Seguidamente:

Bozkatu da Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos eta EAJ/PNV taldeek transakzionatutako mozioa, pentsioen etorkizunari buruzkoa,

Sometida a votación la moción sobre el futuro de las pensiones transaccionada por los Grupos Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos y EAJ/PNV,

Udalbatzak, aldeko 10 botoren gehiengoarekin (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV) eta aurkako 11 botorekin (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ),

El Pleno de la Corporación por mayoría de 10 votos a favor (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV) y 11 votos en contra (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ),

**ERABAKI DU**

**A C U E R D A**

**EZ onartzea** Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos eta EAJ/PNV taldeek transakzionatutako mozioa, pentsioen etorkizunari buruzkoa (erabaki honen azalpen zatian jaso da).

